

ERAIKUNTZAREN SEKTOREAK KLIMA-LARRIALDIARI EGITEN DIO AURRE1

Gaur egungo testuinguru disruptiboan, non globalizazioaren eta digitalizazioaren eragina, superpopulazioa, natur baliabideen agortze progresiboa, biodibertsitatearen galera eta aipatutako gertaera horiek guztiek eragindako ezegonkortasun soziala nagusi diren, higiezinen eta eraikuntzaren sektoreko adituok eta enpresok aitortzen dugu klima-aldaketa gaur egungo erronkarik larriena dela, bai eta DAGOENKO jarduteko garaia dela ere, erantzukizun indibidual eta kolektiboak gure gain hartuta.

Gure esparruan, kontzientzia eta konpromiso irmoa dugu NBEren 2030 Agendarekiko eta gure planeta babestu eta kontserbatzeko ekimen globalekiko; gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldien bizi-kalitatea bermatu nahi dugu. Horregatik, gure ustez, funtsezkoa da gaur egungo klima-larrialdiko egoera aitortzea, baita eraikitako habitata eraldatzeko eta egokitzeko garrantzi handia ere. Izan ere, eraikinak eta eraikuntza direla-eta, karbono dioxidoaren isurien ia % 40 atmosferara bidaltzen da, eta horrek gure habitat naturalei eragiten die.

Eraikuntzaren sektoreko aditu eta enpresentzat, gure gizartearen eskaerak eta beharrak asetzeak – lurraren muga eta oreka ekologikoak errespetatuz– paradigma-aldaketa eskatzen du, gure jarrerari begira. Hori dela-eta, bizitza-ziklo osoan sistema handiago, erresilienteago eta autojasangarriago baten osagai zatiezintzat joko diren eraikinak, hiriak eta azpiegiturak diseinatu eta eraiki beharko ditugu.

Baditugu eraldaketa horri ekiteko ezagutzak eta teknikak. Orain, guztion nahia, konpromisoa eta lankidetzak behar dira, aldaketak benetakoak izan, eta dagokion abiaduran egin daitezen, kalteak konponezinak izan aurretik.

Horretarako, Espainiako higiezinen eta eraikuntzaren sektoreko adituok eta enpresok **HONAKO LAN HAUEK EGITEKO KONPROMISOA HARTZEN DUGU:**

- Behar beste ekimen bultzatzea, herritarrek kontzientzia har dezaten klima-larrialdiarekiko eta arazo hori gelditzeko asmoz etxebizitzak, eraikinak eta hiriak egokitzeko beharrekiko.
- Administrazio publikoekin lankidetzan aritzea, hirien eraldaketa azkartzeko eta eraldaketa hori jasangarritasunera zuzentzeko.
- Ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-jasangarritasuna sustatzea gure jarduketetan, eta jasangarritasun hori kalitatezko irizpide gisa ezartzea, proiektuak, lehiaketa publikoak, sariak eta erakusketak egitean.
- Ezagutzak eta ikerketak partekatzea, eta aliantza estrategikoak sortzea.
- Gaur egungo eraikin-parkea birgaitzeko eta egokitzeko prozesua azkartzea, ezarritako xedeak bete ahal izateko.
- Eraikinen bizitza-ziklo osoa aintzat hartzea, ekonomia zirkularraren printzipioak ahal den neurrian errespetatuz.
- Karbono-isuririk gabeko estandarretik harago doazen diseinuen aldeko apustua egitea.
- Elkarlanean jardutea, eraikuntzak eragiten dituen hondakinak are gehiago murrizteko eta ingurumen-eragin txikia duten material berriztagarrien erabilera sustatzeko gure lan osoan zehar.
- Arkitektura eta hirigintzako natur baliabideen erabilera arduratsua sustatzea, ikuspegi kuantitatibo eta kualitatibo bikoitza aintzat hartuta.